

Maskarak banatu dituzte Arrasateko Garibai autobus geltokian

Arantza Ekibel Galdos 2020-04-14 13:04



Dyako boluntarioak ibili dira maskara higienikoak banatzen: bailaran, Arrasaten izan dira, Garibai autobus geltokian. 5000 maskara ekarri dituzte, baina erabiltzaile kopurua ikusita oso gutxi banatu dituzte.

Azken 35 urteetan Dyako boluntario den Asentzio Zubillaga izan da Garibai autobus geltokian maskara higienikoak banatzen: "Babes-zibilak eman dizkigu maskarak. Goizeko 6:30ean etorri naiz Arrasateko Garibai autobus geltokira. 5.000 maskara ekarri ditut, baina ikus dezakezun moduan, garraio publikoko erabiltzaile kopuru txikia ikusita oso gutxi banatu ditut".

Nabarmendu du berak eskaini egiten dituela baina ez dela derrigorra ez hartzea ezta erabiltzea ere.

"Babes-zibilak aginduta etorri gara hona. Geltoki nagusienetan gaude: bailaran Arrasaten; horrez gain, Eibarren, Gasteizen, Donostian... Gaur hona etorri gara baina bihar non egongo garen ez dakit".

Erabilera bakarrek maskarak dira garraio publikoko erabiltzaileei banatu zaizkienak.

[Gizartea](#)


ALBISTEAK MUGIKORREAN

Debagoieneko albiste nabarmenenak eta azken ordukoak Whatsapp edo Telegram bidez jaso gura dituzu? Harpidetu zaitetz doan!

WHATSAPP: Bidali ALTA 688 69 00 07 telefono zenbakira -Whatsapp bidez-.

TELEGRAM: Batu zaitetz [@GoienaAlbisteak](#) kanalera.

[Erantzun](#)



Ikusienak

 <p>Aramaion egin du geldialdia astoekin herriz herri ari den emakume nomadak Maialen Santos eka 16, 18:12 Aramalg</p>	 <p>Hainbat debagoiendar Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderako aurkeztutako zerrendetan Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 2020 Maialen Santos eka 16, 17:37 Debagoiena</p>	 <p>Gelmako eta Etxe Txikiak 32 atartek alegazioak aurkeztu dituzte trafikoko aldaketek aurka Xabi Gorostidi eka 17, 11:58 Arrasate</p>	 <p>Udalekuak egiteko irizpideak argitaratu ditu Jaurlaritzak Koronabirusa Debagoiensean Uxue Igarza eka 17, 10:17 Debagoiena</p>	 <p>Koldo Eleizalde literatura lehiaketak baditu irabazleak Koronabirusa Debagoiensean Maialen Regueiro eka 16, 16:45 Bereara</p>	 <p>Koronabirus kasu berri bat hauteman dute Oñatin Koronabirusa Debagoiensean Uxue Igarza eka 16, 12:28 Debagoiena</p>
---	---	--	--	---	--

Goiena.eus

Goiena Komunikazio Taldea



Otalora Lizentziaduna 31 - 20500 Arrasate (Gipuzkoa)
Tel.: 943 25 05 05 - berriak[ABILDUA]goiena.eus



Codesyntaxek garatua



HONI BURUZ LEGE OHARRA PUBLIZITATEA ARAUAK HARREMANETARAKO RSS

